

Gaitzespenaz harago

Gure morala, justizia eta abar, aukeramenen oinarritzen dira. Gizakia libre da ongia edo gaizkia aukeratzeko; beraz, gaizkia egiten duenari zigorra. Ez ote da normala?

Biziki gomendatzen dizuet Dick Swaab holandar neurologoaren *We are our brains (Gure garuna gara)* liburua irakurtzea: “Nahi duguna aukeratzeko erabateko askatasuna dugula: ideia hori ez da zuzena eta sufrimendu handia eragin du. (...) Gure sexu-orientazioa ez da aukeratzeko, baizik eta programatuta dago umetokitik. (...) Pederastia ere garunaren garatze-fase goiztiar batean programatzen da” (480. orria).

Gizakion jokabidean faktore biologikoek, genetikok, neurologikok, haurtzaroko heziketak eta esperientziek, ingurune sozio-ekonomikoak... eragiten dutela jakinda, kondena sutsuak baino askoz gehiago interesatzen zait zergatik “ulertzea”, adibidez: zergatik sentitzen dute gizon batzuek haurrenganako sexu-erakarpena, eta zergatik kontrolatzen dute batzuek errazago eta beste batzuek nekezago joera hori? Zergatik gara gizonok emakumeak baino bortitzagoak, batzuk beren seme-alabak hiltzeraino hauen amarenganako gorrotoz? Eta abar. Galdera horiei “oso gaizto eta maltzurak direlako” eran-



Iñaki Mendiguren

IDAZLEA ETA ITZULTZAILEA

Oraintsu arte askorik ez dugu jakin geure burmuin edo garunaren funtzionamenduaz. Orain neurozientziak egundoko aurkikuntzak egiten ari dira gizakion jokabideaz

tzuteak gutxi asetzen nau ni, “gaizto eta maltzurak” zergatik garen jakin nahi dut. Baina geure emozio, interes edo aurreiritziak jokoan daudenean, ez da onartzen galdezka hastea: delitua edo krimena zuzitzea omen da hori, ahulezia eta konplizitatea, biktimentzat iraingarria.

“Gaixotasun psikiatrikoak edo neurologikoak dituzten pertsonen beteak daude espetxeak” (228. orria). “Gure herentzia genetikok neurri handian baldintza dezake gure jokaera erasokor eta kriminala”; eta nerabeei buruz ari delarik, neurologoak dio: “Gaizkile hauei maiztasun harrigarri detektatu zaizkie arazo psikiatrikoak; espetxean dauden mutilen kasuan proportzioa %90eraino ere iristen da” (224. orria).

Oraintsu arte askorik ez dugu jakin geure burmuin edo garunaren funtzionamenduaz. Orain neurozientziak egundoko aurkikuntzak egiten ari dira gizakion jokabideaz; eta aurkikuntza horiek erronka izugarrien aurrean jartzen dituzte gure irakaskuntza-sistema, morala, sistema juridiko eta penala.

Liburuak eztabaida handiak eragin ditu, baina ados ez dagoenak ez lioke, nire ustez, erlijio, moral, filosofia edo ideologiatik erantzun beharko, baizik eta beraren ikerketa-eremutik. Eta ikusirik geroz eta zientzialari gehiago dabilzala ildo beretik –gure artean interesgarria Gurutz Linazasoro–, ez genuke aurkikuntza horien aurka borroka antzurik hasi behar, historian hainbesbetan bezala. Buru osasuntsuagoak eta jendarte sanoagoa eraikitzeke giltzarri garrantzitsuak eman diezazkigukete! ■

 ARGIA

943 371 545
publiz@argia.eus
www.argia.eus/tarifak

**Zure jendea,
zure hedabidea,
zure iragarkia.**

Jarri publizitatea hemen